Fanzines/M

# Mao Tse PUNK

Txantreako aldizkari punkomunista. 4.zkia. 2001ko maiatza

Biblioteca de Comunicación I Hemeroteca General



"El barrio marginal, el ghetto, donde se alojan las gentes que no tienen sitio en las modernas ciudades-fachada que esconden lo que no interesa. Barrios de miseria donde la gente vive una violencia cotidiana y en muchas ocasiones la usa para sobrevivir. Donde la policía impone la ley de la selva, reprime y asesina. El barrio alimenta estadísticas y llena las cárceles, y en él se incrementa el odio hacía los opresores.

¡EL BARRIO ES EL FUTURO!"

**La furia, punk taldea.**

EDITORIALA

# nola aldatzen diren gauzak, KAMARADA!

BBVA-ko erretako kutxazainaren bideokamarak, ahoan pipa bat zeraman kaputxadun baten irudia grabatu du. Ospa egiterakoan Mosahd-eko txakurrek Markos atxilotu dute, eta haikako arduraduna izatea leporatuz, Turkiako espetxe batera dispertsaturik eraman dute. Berlingo okupa kaputxadunek manifak antolatu dituzte, Iruñeko karrikak hartu dituzte eta koktelen suak gaueko iluntasuna hautsi du. Ertzantzak, Goierriko baserri batean, Frente Polisarioaren zulo garrantsitsu bat aurkitu du, Belfasteko UPNk Ipar Irlanda osoan euskaraz mintzatzea debekatu duen bitartean. Atutxak Gaza-ko gazte palestinar bat "Y" taldeen arduraduna dela esan du. Turkiako gobernuak Takolo, Pirritx eta Porrotx kurdoz hitzegiteagaitik gartzelaratu ditu. Irati oihanetik EZLN-k Europako indigenak matxinatzeko deia luzatu du. Munduko prentsak, Markosen kaputxaren azpian izkutatzen den aurpegia ikusteko irrikitan daude, baina Markos izeneko komandante indioa Mosahd-ek Iruñeko karriketan atxilotu badu, zein da zein?. Lacandona oihanean ahoan pipa bat daraman kaputxadun famatuak kaputxa kendu du, eta hona hemen gure sorpresa, Igor Ortega da, haikako bozeramailea. Eta hain zilegiak diren EZLNren kaputxa hauek kendu ondoren "Zapatour"ren Markosekin batera ibili diren beste komandanteak honako hauek dira: Arturo Villanueva, Mikel Ayllon, Igor Suburbiola, Aiora Epelde, Asier Tapia, Igor Chillon, Olatz Dañobeitia, Olatz Karro, Unai Beaskoetxea, Gartzen Garaio, Ibon Meñaka, Arkaitz Rodriguez, Ugaitz Elizaran, Patxi Jimbert, Garazi Biteri, Garikoitz Etxeberria... EZLN Iratiko oihanean. HAIKA,

Lakandonako oihanean, Europan euskaldunak baina indigenagoak ez daude, **ALTXA GAITEZEN BA, EUROPAKO INDIOAK!**



maotsepunk@euskalerria.org



LANGILE BATEN GALDERAK LIBURU BATEN AURREAN.

Zazpi atedun Tebas hura nork eraiki
zuen?
Liburuetan errege izenik baizik ez da
ageri.
Erregeek garraiatu ote zituzten harritzar
haundiok?
Eta hainbatetan porrokatua izan zen
Babilonia,
nork jaso zuen beste hainbestetan? Lima
distirant hura
eraiki zuten langileak, ze etxetan bizi ote
ziren?
Txinako harresia bukatu zen iluntzean:
nora jo zuten harginek? Erroma bikain
hura
garaitz arkuz beterik. Nork altxatu zituen?
Nortzuk menperatu zituzten zesarrek?
Hain ospetsua zen Bizanziok, jauregiz
besterik
ez ote zuen bertako jendearentzat?.
Alegiazko Atlantidan bere bat,
itsasoak irentsi zuen gauean, biztanleak
ito zorian
oihuka ari zitzaizkien beren esklaboei
laguntza eske.
Alejandro gaztek India bereganatu zuen.
Berak bakarrik ote?
Zesarrek galoak menderatu,
ez ote zuen berarekin sukaldari bat
bederen?
Felipe Espainakoak negar egin zuen bere
armada
urperatu zenean. Ez ote zuen beste inork
negarrik egin?
Federiko bigarrenak zazpi urteko gerra
irabazi.
Nork bestek zuen irabazi?
Garaitza bat orrialde bakoitzean.
Nortzuk atondu zituzten garaitza
banketeak?
Hamar urtez behin gizon handi bat.
Nork ordaintzen zituen haren gastuak?
Zenbat historia, hainbat galdera. Historiak
bezainbat galdera.
ZENBAT HISTORIA! ZENBAT GALDERA!

**Bertold Brecht**

## CADA VEZ MÁS ODIO.

Nos estáis obligando a sentir cada vez más odio. Odiamos porque amamos precisamente todo aquello a lo que aspiramos. Somos el resultado de lo que durante años habéis provocado, habéis alimentado. Hemos sido la mula paciente que mueve la noria, el burro de carga que carga y descarga. Hemos sido explotados de todas las formas y en todos los lugares. Bajo cualquier sistema la mano de obra, la mano que siempre sobra. La mano que se estrella contra nuestra boca y que nos hace callar a base de ostias. Ostia que nos dieron ostia que devolveremos. Así es nuestra vida si es que acaso esto es vida. Si vida se llama a vivir de rodillas. Desde este mismo instante exigimos una vida que merezca la pena ser vivida. La de nuestros padres fue una vida de perros. La nuestra transcurre sin pena ni gloria. Venimos prestando demasiadas veces el rostro a esta tragedia que habéis diseñado desde esos despachos, macrocomisarias, desde esas prisiones donde estáis matando gente. Gente que lucha, gente que arriesga porque su vida no sea como lo ha sido hasta ahora. Nos estáis obligando a sentir cada vez más odio. A este mundo le sobran casi tantas buenas intenciones como hijosdeputa con nombres y apellidos que luego hablan de miedo. ¿De qué tenéis miedo?, ¿del lujo, del capricho, de los privilegios o más bien de perderlos?. Lo nuestro sí es miedo, es miedo a esta vida, es miedo al propio miedo, es miedo al mañana. Lo que en definitiva es el miedo al día a día en

que vosotros ganáis y nosotros perdemos, el ojo por ojo de aquel pelotazo que nos dieron en la mani en la que defendíamos el puesto de trabajo que nunca tuvimos, que jamas nos dieron. Siempre las mismas mentiras. El mismo discurso dominante. Esa infinita combinación de miseria que permite que cada vez sean más los camellos que logran pasar por el ojo de la aguja. Mienten, ¿quiénes son los que mienten?. Mienten quienes tienen el suficiente poder para hacerlo de forma permanente. Los de arriba dictan y los de abajo asienten. La democracia dura mientras dura la obediencia. Crece el rencor, aumenta la rabia. Se agota la paciencia. Una conclusión hecha a modo de advertencia: ¡Que cada cual llore a sus muertos!.
Nos estáis obligando a sentir cada vez más odio



**Habeas corpus.**

## POESIA EN ARMAS.

CUANDO ERA PEQUEÑO ESCRIBÍA POEMAS
CON CARBÓN DE COCINA
EN LOS PAREDONES DE LA CASA.
Y ASÍ FUI CRECIENDO JUNTO CON MIS POEMAS
MI OFICIO DE TIPÓGRAFO ME ENSEÑÓ A PONERLE RITMO
A LAS MAQUINARIAS
LAS DURAS JORNADAS ERAN POEMAS PARA MÍ
PERO PALPÉ ESO DE LA EXPLOTACIÓN Y LOS VERDUGOS.
Y LOS SUCESIVOS POEMAS LOS TAQUIÉ DE POLVORA
LOS MARTILLÉ
Y TOMÉ POR LA CULATA EL VERSO LARGO
APUNTÉ CON ÉL AL DICTADOR Y SUS CONGÉNERES.
AMONTONÉ UNO TRAS OTRO
CONSTRUYENDO BARRICADAS
Y CUANDO EL PUEBLO LUCHABA EN LAS CALLES Y BARRIOS
DEJÉ IR MIS PRIMERAS RAFAGAS....

DESDE ENTONCES LA POESÍA ES MI MEJOR ARMA
QUE LLEVO EN LOS GLORIOSOS COMBATES
DEL PROLETARIADO!

**Alfonso Hernandez**, El Salvadorreko poeta eta iraultzailea (1948-1988). El Salvadorreko borroka iraultzailearen hasieran, (60.hamarkadan, eta 1988.urtean borrokan hil arte) hartu zuen parte. Herriaren alde eman zuen bizitza, El Salvador herriarentzako gizarte libre berri bat eraiki nahiean. Klandestinitatearen gogortasuna ondo ezagutu zuen, baita mendietako borroka armatua ere. FMLNren barneko “Resistencia Nacional”-eko alderdikidea zen. 1988ko Azaroaren 10ean gobernuko militarrek borrokan zauritu, atxilotu, torturatu eta ondoren burua moztu zioten.
Alfonso oso ezaguna ez izan arren, bere oroimenean guri dagokigu haren olerkiak zabaltzea eta batez ere borrokan jarraitzea.

## MARX ATACKS
## *(PLANETA GORRI BATI BELDUR.)*

Estralurtar espaziontzi batek lurra hartuko balu bezala, 1818ko maiatzaren 5ean, Alemaniako Treveris hirian, lurrartu zuen Karl Marxek. Zuzenbide ikasketak egin behar bazituen ere, azkenean filosofia ikasi zuen. Ondo ezagutu zuen "kapitalista" planeta, eta beraz gizarteko arazoetaz kexkaturik zegoen. Kazetari lanetan hasi zen eta haren lehenengo artikuloekin kapitalismoaren "nabe nodriza"ren aurkako lehenengo atakiak burutu zituen. 25 urte zituenean Parisera lan egitera joan zen eta bertan bera bezalako inteligentzi estralurtarra zen Federic Engels ezagutu zuen. Ekintza iraultzaileen bidez, "planeta kapitalista" komunista bihurtzeko asmoa izateagatik, Frantziatik bota zuten, eta Bruselera joan zen. Geroxeago, Engelsekin "manifiesto komunista" sortu eta zabaldu zuten. Manifiesto honek iraultza prozesu batzuen sorrera lortu zuen, (1848.urtean Frantzian, Alemanian eta Austrian). Hori dela eta Belgikatik ere kanporatua izan zen. Parisera itzuli zen eta gero Coloniara non aldizkari komunista berri bat argitaratu zuen. 1849.urtean atxilotua izan zen iraultza armatuaren aldeko deia egiteagaitik. Absolbitu zuten baina Alemaniatik kanporatu zuten. Londresera joan zen. Bertan bere idazlan garrantsitsuenak idatzi zituen; "kapitala", hauen artean. Marxen teoriak dio, borroka armatuaren bitartez, langileek poterea hartu behar dugula, eta estatu kapitalista suntsitu behar dugula. Mundu osoko iraultzaile askorekin mintzatu ondoren 1864.urtean Londresen lehenengo internazionala osatu zuen. Karl Marx 1883ko martxoaren 14ean zendu zen, baina mundu mailan atakia prest zegoen. Esaterako, 1917.urtean Inperioaren bihotzean (Errusian)



Leninek gidatu zuen gure lehenengo garaipen garrantsitsua; boltxebike iraultza, eta hurrengo urteetan Mao izan zen Txinan, Fidel eta Txe Gebara Kuban....etabar luze bat. Halere, gaur egun kapitalisten sistema planetarioa suntsitzea ez dugu lortu, eta azkeneko urte hauetan inperioaren kontraerasoa jaso dugu. Baina Marxek hasitako ofentsiba intergalaktikoa ezin izango dute gelditu, eta gure espaziontzi gorriek, Euskal Herritik, Txiapaseraino ortzea zeharkatuko dute. Inperioa planeta gorri bati beldur da. Hasia da gure atakia, martxan dago **MARX ATACKS.**



Azken guda dantzan
aizkorak elkartu zituztenen seme-alabak gara
atzoko eta gaurko borroka abestien artean
haiek hustutako sagardo botilak ganbaran bilatu
eta berriro kaleak sutan ikustera etorriak

beldurtu egiten ginen arratsak desagertzen zirenean
eta edoski behar genituen bularrak eramaten zituztenean
eta negar egiten genuen
malko bakoitza iraun ahal izateko taupada bat balitz bezala
ohe hutsen geografian errepideen senideak bihurtu ginen
hemen gauak lau ertz dituela idazten zutenen bila

baina oraindik ez genuen ikasi
irailaren begietan krespoiak jartzen
gernika moskun entzun zitekeen abestia zen
eta monbar izeneko hotel baten izara gorrietan
idatzi zituzten guri handik portu batzuetara
itsasoak emandako aizkorak.

**Gari Berasaluze.**